

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen hartze programa zerbitzua kontratatzeko lizitazioa

Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak, sektore publikoko kontratuen legegaren testu bateratua onartzen duenak, 142. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betez, lizitazio iragarki hau argitaratzen da; hain zuzen ere, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluaren 2016ko abuztuaren 3ko erabaki baten bidez onartutako kontratazio prozedurarena da.

1. Erakunde esleitzaila.

a) Erakundea: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea

b) Espedientea izapidetzen ari den bulegoa: Kontratazioaren eta Araubide Juridikoaren Arloko Zuzendariordetza Teknikoa.

c) Espediente zenbakia: 12/16

2. Kontratuaren xedea.

a) Xedearen azalpena: Babesgabetasun larrian aurkitzen diren haur eta nerabeen ongizatea lortzeko ekintzak.

b) Zerbitzua non emango den: baldintza teknikoen agiriaren VIII. atalean adierazitakoa.

c) Kontratuaren iraupena: hiru urte. Kontratuaren iraupen bereko edo gutxiagoko luzapenak egiteko aukera dago; edonola ere, kontratuaren iraupena guztira, luzapenak barne, ezingo da izan sei urte baino luzeagoa.

3. Izapidetzea, prozedura eta esleitzeko era.

a) Izapidetzea: arrunta

b) Prozedura: irekia

c) Modua: ezaugarrien taulako U) idatz zatian jasotako irizpideen arabera.

4. Kontratuaren aurrekontua: 1.391.423,03 euro (BEZa barne), kontratuak iraungo dituen hiru urteetarako.

5. Lotea: ez.

6. Lizitazio mota: ikus ezaugarrien taulako E) idatz zatia.

7. Bermeak.

Behin-behinekoa: ez da eskatu

Behin betikoa: kontratuaren esleipen prezioaren ehuneko 5 (BEZa aparte).

8. Agiriak eta argibideak eskuratzea.

a) Arabako Foru Aldundiaren kontratatzailearen profila: www.alava.eus/ifbs/

b) Erakundea: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea (Kontratazioaren eta Araubide Juridikoaren Arloko Zuzendariordetza Teknikoa).

c) Helbidea: Alaba Jenerala, 10 – 4. solairua, 4. bulegoa

d) Herria eta posta kodea: 01005 Gasteiz

e) Telefonoa: 945151043; faxa: 945139653

9. Kontratataren berariazko betekizunak.

a) Sailkapena: ez.

b) Ekonomia eta finantza kaudimena eta kaudimen teknikoa: ezaugarrien taulako O) idatz zatiaren arabera.

c) Beste betekizun batzuk: ezaugarrien taulako Q) idatz zatian ezarritakoak.

10. Eskaintzak aurkeztea

a) Epea: berrogei egun (40) EBAOra deialdiaren iragarkia bidaltzen den egunetik.

b) Aurkeztu beharreko agiriak: ikus ezaugarrien taula eta administrazio klausulen eta baldintza teknikoen agiriak.

c) Eskaintzak aurkezteko lekua:

Erakundea: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Erregistroa, Kontratazioaren eta Araubide Juridikoaren Arloa.

Helbidea: Alaba Jenerala, 10 – 4. solairua, 4. bulegoa

Herria eta posta kodea: 01005 Gasteiz.

Zein ordutara arte: 14:30 (larunbatak baliiodunak).

11. Eskaintzak irekitzea

a) Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea.

b) Helbidea: batzar aretoa (Alaba Jeneralaren kalea 10, 5. solairua, 3. bulegoa, Gasteiz)

c) Eguna eta ordua: ikus ezaugarrien taulako T) idatz zatia.

12. Iragarki gastuak: esleipendunak ordainduko ditu.

13. Iragarkia Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialera bidali zen eguna: 2016ko abuztuaren 29a.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko abuztuaren 29a

Zuzendari-kudeatzailea

JOSÉ LUIS ALONSO QUILCHANO